

Ikasle ohien festa

1. Elkarrizketa

–Jon, zelan zabilta?

–Hepa, Alazne! Oso ondo! Lan berri batean hasi naiz eta oso pozik nago. Eta zu, zelan?

–Ba, hainbestean. Psikologia ikasten ari naiz Donostian. Gustura ari naiz.

2. Elkarrizketa

–Gaizka, aspaldiko! Jarraitzen al duzu ikasten?

–Kaixo, Alazne! Ez, taberna batean hasi naiz lanean.

–Eta? Gustura zabilta?

–Bai, ordutegi ona eta soldata ona dauzkat. Zuk? Psikologiarekin jarraitzen duzu?

–Bai, oso interesgarria da eta asko ikasten ari naiz.

3. Elkarrizketa

–Gotzone, zelan?

–Alazne, aspaldiko! Ba, oso ondo. Ikasketak bukatu ditut eta urtebete hartuko dut mundua ezagutzeko.

–A zer plan ona! Niri ere asko gustatzen zait bidaiatzea. Datorren udan Greziara joango naiz, Lesbosera, Zaporeak proiektuarekin lan egitera.

–A, zer interesgarria! Kontatuko didazu!

4. Elkarrizketa

–Marta! Zenbat denbora! Zer berri?

–Ba, gauza handirik ez, Alazne. Herrian bizi naiz gurasoekin, beti bezala.

–Eta zer ari zara ikasten?

–Medikuntza ikasten ari naiz.

–Ai, zer ondo! Ni hipokondriakoa naiz, eta asko estimatzen dut medikuren bat inguruan izatea!